

Errobotik euskal itsasbazterrera

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA
2

ERRAZ

KANBO BEHERA

KANBO



Vue sur le Bas Cambo

Tokiko arkitektura deskubritzeko ibilaldi polita, Kanbo Behereko euskal etxe miresgarrietatik. Gailurretako Inperio bideruntz (route des Cimes), mendi-bizkarreko igaiteak bazter miresgarriak eskaintzen ditu.

Abiatzeko bidea:

Herri barnetik, herriko etxearen ondoan, Turismo bulegoaren heinean.

Turismo bulegotik **D** 629750 - 4802158, herriko etxearen aitzinetik pasatu eta eskuinera hartu Trinketaren karrikan. Trinketaren hotelaren heinean, Xerri karrikatik segitu. Karrikarte pitoresko horrek Errobi zeharkatzen duen zubi handi batera **1** 629855 - 4802350 eramaiten du. Zubia zeharkatu eta ezkerraldean den lehen bidea hartu. Kanbo Behereko erdira segitu. Bidean, etxe zahar batzuen edertasunaz gozatu. Frontoiera joaiteko bidegurutzean, Haltsurako bidea hartu ezkerrean. Zuzen segitu; kasu egin norabide bikoitzeko bide hertsia baita. Trenbidearen azpitik pasatu baino lehen, eskuinean den pista harritsua hartu **2** 629061 - 4803422. Pista laster igitzen da, ibilaldiaren igaite gogorrena osatzen du (100 metroko desmaila). Oihanetik ateratzean, eskuinera hartu eta ezkerrean den pista segitu Kurutxaldeko bazter herrixkaraino. RD 250 bidegurutzean **3** 628907 - 4804595, eskuinera hartu eta doi-doi igitzen den bide horretan segitu 1,5 kilometroz,

Gailurretako Inperio bideraino (route des Cimes). Eguraldi ederra baldin bada, panoramaz gozatu. Cimes bidera iritsi baino pixka bat lehenago (80 metro), eskuinera hartu **4** 630038 - 4805123. Kanbo Beherara itzultzeko bide ttipi batetik jaitsi **5** 629662 - 4803206. Abiatzeko puntura itzuli joaitean hartutako bide beretik, 1,4 km gelditzen dira herriko etxera iristeko.

1.45

2.15

0.35

1.20



D Kanbo,
Turismo bulegoa

GPS : 629750 - 4802158

2.15 oren

Seinaletika

D-tik 5 -rat

8,6 km

+203 m
-203 m

Huts egin behar ez dena

- Kanbo Behereko auzo pitoreskoa
- Panorama mendi gainetatik
- Arnaga etxea
- Ur termalak

Kasu egin RD 250 bidean

©IGN

KANBO

Kanboko ur termalen fama ez da berria. Erdi aroan, bere ur termalak eta klima pribilegiatuak jadanik erakartzen zuten jendea.

Hiri tipi horren gomitak ez dira gehiago kondatzen, batez ere Marie-Anne de Neubourg Espainiako erregina alargunak bere egonaldi maitagarrienaren lekua bilakarazi zuenetik.

Edmond Rostand-ek ere Kanboko herria sakonki markatu zuen. «Cyrano»-ren idazle, Edmond Rostand Kanbon egon zen hilabete zonbaitzuz, eta «malba koloreko mendiak eta Errobi urdinetik» ezingo zuen ihes egin laster. Herrian berean instalatu zen eta Arnaga etxea eraiki zuen 1903tik 1906erat,

bere frantses moldeko lore baratze eta laranjadoiarekin.

Errobi haranttoaren gainaldeko lur punta batean eraiki-rik, Pirineotako mendilerroa buruzko bista eskaintzen du etxeak.

Kanboko herria Chiquito de Cambo pilotari famatuaren seaska da ere bai.

Bere lapurtar etxe zaharrekin, Kanbo Behereko auzo pitoreskoak bere izaera berezia atxiki du.

Xehetasun gehiagorentzat:

Kanboko Turismo Bulegoa

Herriko etxeko etorbidea – 64250 Kanbo - Tel : 05.59.29.70.25

Mail : info@cambolesbains.com - Web : www.cambolesbains.com

« Guides randos 64 » zerrenda osoa: www.rando64.fr



www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarnoa eta Euskal Herria deskubritu!

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaletikak



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziki kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



Ibilaldiak

Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira, eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

► 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.

► 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.

► 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kirotsuak.

► 2 oren baino gehiagoko ibilaldia
Ibiltari esperientziadun eta kirotsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorak).

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR®-en xendrak	GRP®	GR®	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerrera hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GRP®, GR® eta PR® Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR® labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

Bideen GPS helbideak

Erreferentziatzeko neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

► Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com.

Errobitik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

Natura zaindu

► Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ► Fauna eta flora errespetatu ► Balizak dituzten xendretan egon

Zuen burua babestu

► Material egokirik gabe ez joan ► Bakarrik joaiteak arriskuak ditu ► Erreketatik datorren ura ez edan ► Meteo so egin

► Europako urgentziatzeko deia 112

— *Jarduerak eta jendeak errespetatu* —
► Hesiak berriz hetsi
► Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.
► Suak debekatuak dira
► Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Uso ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

Egiteko gomendioak:



Gure xendrei buruzko iritziak

Eco-veille®

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitza gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkartora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille® orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille

Ecoveille® behaketa orri bat ere eskuratzeko ahal duzue.

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarnoa eta Euskal Herria deskubritu!